

HASI GABEKO BIDAIA EZEZTATZEKO GASTUEN ASEGURUAREN BALDINTZEN LABURPENA, ERAKUNDE ASEGURU-HARTZAILEAK EMANDAKO ORO BUSINESS TXARTELEN TITULARRENTZAT. LABURPEN HONEN HELBURUA INFORMATZEA BESTERIK EZ DA, ETA, BERAZ, EDOZEIN GATAZKA EDO AUZI ARGITZEKO, POLIZAREN BALDINTZA OROKORRETAN, PARTIKULARRETAN ETA BEREZETAN JASOTAKORA JO BEHARKO DA.

Ezbeharren bat gertatuz gero, bidali mezu elektronikoko bat [reembolsos@imaiberica.es](mailto:reembolsos@imaiberica.es) helbidera edo deitu 91 390 73 05 telefono-zenbakira

#### **AURRETIKO XEDAPENAK:**

**ASEGURATZAILEA:** IMA IBÉRICA SEGUROS Y REASEGUROS SA. Egoitza soziala: Julián Camarillo kalea, 29, 28037, Madril. IFZ: A-78689726. DGS eta FP erregistro-gakoa: C0709.

**HARTZAILEA:** CAJA LABORAL POPULAR SOCIEDAD COOPERATIVA DE CRÉDITO (aurrerantzean, LABORAL Kutxa).

**HASIERA-DATA ETA MUGA-EGUNA:** 2020-07-01EKO 00:00ETATIK 2025-12-31KO 24:00ETARA.

**ASEGURATUA:** ohiko bizilekua Espainian duen pertsona fisikoa, LABORAL KUTXA ORO BUSINESS txartelaren eta aseguratutako interesaren titularra, kontratutik eratorritako eskubide guztiak bere gain hartzen dituena.

**ASEGURUAREN EREMUA:** poliza honetan deskribatutako bermeek Espainian jazotako gertaerarako balio dute.

#### **ESTALITAKO BERMEAK:**

- EZEZTAPENA: HASI GABEKO BIDAIA EZEZTATZEAK ERAGINDAKO GASTUAK.** IMA IBÉRICAK honako hau bermatzen dio aseguratuari: dagokion garraio-konpainiaren kontratu-baldintzetan, garraio publikoko txartelak ezeztatzeari buruz, jasotakoaren arabera, fakturatu zaizkion ezeztapen-gastuak (gestio-gastuak barne) itzultzea. IMA IBÉRICAK 400 € bermatuko ditu gehienez bidaiako eta 2 bidaiak ezeztapen urteko.

Ezeztatze-bermea baliozkoa izateko, nahitaezkoa da aseguratuak bidaiak hasi aurretik ezeztatzea, kontratua sinatu ondoren sortutako ustekabeko arrazoiak direla eta kontratatutako egunetan bidaiak egin ez duelako, betiere arrazoi horiek aseguratuaren kontrolatik kanpo badaude eta hirugarren bati (kanpoko enpresa bati) egoztekoak badira, hau da, bidaiaren xedea zen bileran parte hartu behar zuen beste aldeari.

Era berean, aseguratuak dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, honako hauek egiaztatzeko:

bilera egiteko aurreikusitako data, garraio-txartelak erosi izana, hirugarrenak bilera bertan behera uzteko egindako idatzizko jakinarazpena eta txartela ezeztatzeko gastuak.

#### **INFORMAZIOA ETA GOMENDIOAK**

Adierazi zure izena eta/edo NANA eta eman gertaerari eta horren ondorioei buruzko informazioa arreta emango dizun teknikariari. Ez ahaztu esatea non zauden, zer laguntza-mota eskatzen duzun eta non aurki zaitzakeen, baita harremanetarako telefono-zenbaki bat ere. Jakinarazten dizugu elkarrizketa grabatu ahal izango dela, zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko eta ezbeharren inguruko arreta berrikusteko helburuz.

Edozer informazio, kontsulta, erreklamazio edo kexa egiteko, jo ezazu IMA IBÉRICA SEGUROS Y REASEGUROS SAREN Aseguratuarentzako Arreta Departamentura (Julián Camarillo kalea, 29, 28037, Madril 28037), honako helbide elektronikoko honen bidez: [imacalidad@imaiberica.es](mailto:imacalidad@imaiberica.es).

Era berean, baliabide elektronikoen bidez ere jarri ahal izango dituzu egoki deritzezun kexak edo erreklamazioak, honako helbide honetan: Aseguru Zuzendaritza Nagusiaren webgune ofiziala>Egoitza Elektronikoa>Prozedurak eta Zerbitzuak>Erreklamazioak>Aseguratuaren eta partaidearen babesa>Aurkeztu erreklamazioa; edo esteka honen bidez:

[https://www.sededgsfp.gob.es/SedeElectronica/Reclamaciones/Index\\_Proteccion\\_Asegurado.asp](https://www.sededgsfp.gob.es/SedeElectronica/Reclamaciones/Index_Proteccion_Asegurado.asp)